

GAZE ETA DSS2016-REN KALEIDOSKOPIO PROIEKTUKO BIGARREN MODALITATEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN ESLEIPENERAKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. Sarrera

Kaleidoskopio proiektua Donostia-San Sebastian 2016 Europako Kultur Hiriburuaren parte da eta Bestelab Kaiaren barne dago. Bestelab-ek ahalduntze eta hiritarren parte hartzea errazten dituzten inizatibak sustatzen ditu. Kaleidoskopio proiektuaren bitartez, Bestelab-etik, Gipuzkoako diziplina ezberdinetako goi-mailako ikasketa zentroetako ikasleekin berrikuntza eta izaera kolaboratiboa dituzten inizatibak sustatzea bilatzen da. Hortaz, multidiziplinarrak eta interinstituzionalak diren proiektuetan parte hartzeko aukera ematen du.

Batetik, Kaleidoskopiok hausnarketa eta sorkuntza kooperatiboaren prozesua lantzea ahalbidetzen du beste espezialitateko eta beste zentroetako ikasleekin arazo errealetan oinarritutako proiektuekin. Arazo errealak dituzten gertuko eragile sozialekin lan egitean datzan esperientzia da.

Bestetik, Kaleidoskopiok obra baten berrinterpretazioa egiteko aukera ematen du, berau ikuspuntu pertsonal batetik egindakoa izanik. Bigarren modalitate honek ikuspuntu ezberdinak jasotzea espero du hirian ikusgai egongo diren obra batzuen inguruan, hauetatik urrun dauden biztanleriaren sektoreetara gerturatzeke helburuarekin. Horrela, inklusibitatearen inguruan lan egingo da, ikuspegi desberdinetako lan ezberdinak jasoz.

Horretarako, proposatutako obra bakoitzeko deialdi bat egingo da. Bertan, diziplina ezberdinetako ikasleek, obraren inguruan egin nahi dituzten berrinterpretazioen proposamenak aurkeztuko dituzte. Jasotako lanetatik hiru aukeratuko dira (proposatzen diren obra bakoitzeko), eta laguntza ekonomikoa eskainiko zaie, berrinterpretazioa aurrera eraman ahal izateko aukera izanik.

2. Xedea

Deialdi honen xedea Kaleidoskopio proiektuaren bigarren modalitateko laguntza ekonomikoak banatzean datza. Berauek, diziplina ezberdinetako ikuspegitik egindako eta irabazle suertatutako berrinterpretazioei esleituko dira. Era berean, berrinterpretazio hori, Kultur Hiriburutzaren programazioan kokatutako bost obretako batean oinarritu beharko da.

Beraz, modalitate honek, Hiriburutzaren programako bost obra izango ditu ikasketa-xede gisa, helmuga batekin: diziplina askotariko ikasleen aldetik, obren irakurketa ezberdinak biltzea. Hau da, modalitate honen helburua honakoa da: proposaturiko obretariko batean oinarrituta, eta aurkezten denaren diziplinaren ikuspegitik, ikasleek berrinterpretazio bat burutzea.

Eskatzaileak, ondoren zehazten diren bost obretako batean oinarritu beharko dira lana gauzatzearren:

1- TARZANI OMENALDIA (Rafael Ruiz Balerdi)

Pintatutako filma

Rafael Ruiz Balerdi margolariak film hau sortu zuen zeluloidearen gainean zuzenean pintatuz. Tarzanen metraje luzeko film baten pasarteak erreferentziatzat hartuz, pelikula garden batean margotu zituen irudi filmatuak, kalkomaniaren metodoa erabiliz.

Iraupena: 5 min

Urtea: 1966

INFO +

1966 - Gaur konstelazioak - 2016 (Ahotsen itsasargia)

Kokalekua: San Telmo Museoa (Donostia)

Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00etatik 20:00etara

Prezioa: Tarifa orokorra 6€. Tarifa murriztua 3€. Asteartetan sarrera dohainik.

2- NIRE AMA ERROMAN HIL DA (Iratxe Jaio y Klaas von Gorkum)

Formatu txikiko 915 marrazki + entzunezko koloredun bideoa (HD)

Obrak grafito gatazkatsuen lanak azaltzen ditu 1000 marrazki inguru eta bideo baten bidez, non hainbat adituk, bai alde bai kontra, grafito horien esanahia argitzen saiatzen diren.

Urtea: 2014

INFO +

1966 - Gaur konstelazioak – 2016 (Ahotsen Itsasargia)

Kokalekua: San Telmo Museoa (Donostia)

Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00etatik 20:00etara

Prezioa: Tarifa orokorra 6€. Tarifa murriztua 3€. Asteartetan sarrera dohainik.

3- JUDAS ARRIETAREN MURALA TRINTXERPEN (Judas Arrieta)

Murala

Judas Arrietak hain berezia den irudien palimpsestoa estiloa erabili du aurretik sortua zegoen mural batean. Hemen skate tablez osaturiko leiho bat eratu du. Leihoaren beste aldean paisaia asiar bat pintatu du.

Urtea: 2015

INFO +

Hormek diote (Bakearen Itsasargia)

Kokalekua: Ciriza Etxea (Trintxerpe) Aduana Kalea, 20110 Pasaia, Gipuzkoa.

4- ITURRIAK / FUENTES (Maidier López)

Instalación

Iturriak/Fuentes hiritik erretiratutako 13 iturri errekuperatu eta plaza berean instalatzean datza. Agrupazio eta katalogazio honek, plaza, Plaza batean bihurtu nahi du; guzti hau, historiaren, memoriaren eta erabilpen ezan dauden hiri-altzarien berrerrabilpenaren bidez.

Urtea: 2016

INFO +
Iturriak/Fuentes (Pagadiko Kaia)
Kokalekua: Ondarretako lorategiak (Donostia).

5- EMAKUMEAK PORTUAN DESKARGATZEN

Argazki-bilduma eta idatzia

Argazkiak, Pasaiaiko portuan dagoen arrantzaleen itsasontzi batean lanean ari den emakume talde bat irudikatzen du. Berau, emakumeek urtetan zehar itsas-munduarekin izan duten harremana ezagutarazten duen erakusketa batean azaltzen da. Ikatzaren, mineralen edota bakailaoaren deskarga izan ziren emakumeek burutako lanak gure inguruko portutan, gizonzkoenak baino soldata txikiagoak jasoz. Argazkien artean, 1848ko idatzi bat dago, zeinean emakume hauenganako tratu txarrak ekiditeko hartu beharreko neurriak azaltzen diren.

Urtea: XIX. eta XX. mendeak

INFO +

Emakumeak eta itsasoa (Elkarrizketak)

Kokalekua: Untzi Museoa (Donostia), 2^a solairua.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera: 10:00etatik 14:00tara eta 16:00atik 19:00tara. Igande eta jaiegunak: 11:00atik 14:00tara.

Prezioa: Tarifa orokorra 3€. Tarifa murriztua 1,5€. Ostegunetan sarrera dohainik.

3. Berrinterpretazioen formatua

Berrinterpretazioak edozein diziplina edo esparru akademikoren ikuspegitik egin ahal izango dira: zientzia esperimentalak, irakaskuntza teknikoak, osasun-zientziak, gizarte zientziak edo juridikoak, giza zientziak, etab.

Proposamenak askotarikoak izan daitezke: testuinguraketak, ikerketak, obra edo eratorritako sorkuntzak... eta edozein formatutan aurkez daitezke. Hau da, berrinterpretazioak gauzatzeko formatua askea da, hauetaz jardun dezakegarrik:

- Testu idatziak
- Ikerketa-lanak
- Eratorritako obra artistikoak (plastikoak, ikus-entzunezkoak, eszenikoak...)
- Maketak edo 3D irudiak
- Ipuinak
- Hizkuntza informatikoa edo zientifikoa
- Beste edozein formatu

4. Laguntzen zenbatekoa

Deialdi honetan, arestian zehazturiko obra bakoitzeko hiru laguntza ekonomiko eskainiko dira gehienez (guztira 15 laguntza), beka bakoitzaren zenbatekoa 600€koa izanik.

Laguntzen deialdi honetan aurreikusitako gastu maximoa, beraz, 9.000€koa da.

5. Eskatzaileen baldintzak

Unibertsitateko gradu, master edota goi-mailako zikloak burutzen dituen oro aurkeztu ahal da deialdi honetan; beti ere, Gipuzkoako lurraldearen baitan kokatzen diren goi-mailako ikasketa-zentroren batean matrikulatuta badaude.

Adingabeok edo ezgaiek beren eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, beren tutore legalek burutzen duten heinean.

Laguntza hauen esleipendunek, laguntza, diru laguntza edo antzekoren bateko diru itzultze nahiz zigor prozedura batean baleude, emakida eta ordainketa baldintzatuko zaie diru itzultze edo zigor prozedura horiek amaitu arte.

6. Eskaeren aurkezpena eta epeak

Deialdian parte hartzeko, Miguel Sánchez-Mazas Katedraren web orrian (<http://www.ehu.eus/es/web/miguelsanchezmazaskatedra/kaleidoskopio>) dagoen formularioa erabili beharko da, berau betez, eta maiatzak 11a baino lehen ondorengo helbide elektronikora bidaliz: **kaleidoskopio@dss2016.eu**

Hala bada, eskatzaileek formularioa bete beharko dute (era indibidualean), zeinean beren datu pertsonalak eta akademikoak zehaztuko dituzten. Datu hauekin batera, hautatutako obraren berrinterpretazioaren abstract edo laburpena gehituko da. Honi dagokionez, baldintza hauek bete beharko ditu:

- Bere luzera 1000-1200 hitz ingurukoa izan beharko da, eta bertan, parte-hartzailearen ideia azalduko da, bai eta nola eramango luke proiektu hori aurrera irabazle suertatuz gero (ahalik eta zehatzen).
- Idatzia euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- N.A.N.aren fotokopia.
- Burutzen ari den unibertsitate-gradu, master edo goi-mailako zikloko matrikularen frogagiria; beti ere, Gipuzkoako lurraldearen baitan kokatzen diren goi-mailako ikasketa-zentroren batean matrikulatuta egonik.

Proiektuaren arduradunak eskatzailearekin kontaktuan jarri litezke, emandako informazioaren inguruan zehaztapenak eskatzearren.

7. Balorazio-irizpideak

Balorazio-irizpideak ondorengoak izango dira:

- Proposamenaren originaltasuna.
- Hautatutako obrari dagokionez, ikuspuntu berri baten ekarpena egiteko gaitasuna.
- Eskatzailearen proposamenaren eta Kaleidoskopio proiektuaren berezko diren gaien (berrikuntza, inklusioa, aniztasuna, jasangarritasuna...) artean erlazioa egotea.
- Interpretazioaren transferigarritasuna.

Lanen ebazpena maiatzak 13an gauzatuko da.

8. Esleipenaren prozedura

Epaimahai batek ekingo die esleipendunen balorazio eta hautapenari, aurreko atalean ezarritako balorazio-irizpideen arabera, eta aintzat hartuz, antzeko profilen aurrean, onuradunen heterogeneotasuna faboratzea (generoari, adinari, jatorriari, diziplinari, ikasketa-mailari... dagokienez).

Epaimahaia hainbat elementuz osatuta egongo da: Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioko pertsona bat, GAZE sareko beste bat, eta UPV/EHUko irakasle bat.

Deialdiaren ebazpena lanen epemuga amaitu ondoren jakinaraziko da, aste bateko epean, gehienez ere.

9. Laguntzen onuradunen betebeharrak

Laguntza ekonomikoen onuradunak hauetara behartuak egongo dira:

- Laguntzaren onarpenerako dokumentu bat firmatzea. Bertan, erabat zehaztuko dira berauren baldintzak, eta honekin batera, sinatzailea konprometituko da GAZE sareari berrinterpretazioaren garapena entregatzera.
- Proposatutako proiektua epearen barnean entregatzea. Lanaren entrega-epea 2016ko uztailaren 29a izango da.

Azpimarratutako betebeharren ez betetzeak, laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

10. Ordainketa-modua

UPV/EHUK abonatu du laguntzaren zenbateko totala, ordainketaren eskaeraren hartzetik hilabete bateko epean. Hau guztia, jakina, onuradunaren berrinterpretazioaren proposamena azaltzen den eskaera entregatu ondoren, ezarritako epeen baitan, eta lanen hartzearen arduradunak ziurtatuta.

11. Berrinterpretazioari eta oinarrien onarpenari dagokienez

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarrien onarpena eta dokumentu honetan ezarritako baldintza oro. Beraz, beka hauen onuradunak behartuta egongo dira berauek betetzera behin eskaera bidalita, bai eta hurrengo atalean aipatzen den Jabetza Intelektualaren eskubideen lagatzera.

12. Jabetza intelektual

DSS2016 Fundazioaren helburu estrategikoak (Jabetza Intelektualari dagokionez), “domeinu publikoko eta sarbide askeko kultura sustatzea”. Hortaz, eta helburu horiek betetzearren, deialdi honetako parte-hartzaileek, bertan sor daitezkeen Jabetza Intelektualaren eskubide guztiak (kopiaketa, distribuzioa, komunikazio publikoa, transformazioa eta komertzializazioa) ematen dizkiete DSS2016 Fundazioari eta Miguel Sánchez-Mazas Katedrari, lurralde- nahiz denbora-mugatze gabe.

Behin proiektuaren gauzatzearen eskubideak lagatzea jazorik, DSS2016 Fundazioak CC BY SA 3.0 ES lizentziaren esku utziko ditu. Honek, egiletza behar bezala aitortzera, lizentziari bitartekari batez hornitzera eta aldaketak egin diren adieraztera behartzen du.